

“Ez batura ez atal”

Asier Mendizabal

2019ko ira 20 - abe 7

CarrerasMugica

Ez batura ez atal-ek erakusketarako beren-beregi egindako lan multzo bat biltzen du, hitzaurre funtzioa betetzen duen aurretiko lan batek lagunduta. “Not all that moves is red (Telón) #2”, 2012an egindako oihalezko lanak leku oso nabaria du erakusketan, askotan gainontzeko elementuen hondo bezala, bere formak dakarren eta izenburuak argi adierazten duen funtzioa betez: teloiarena. Elkarri jositako bederatzi banderak osatzen dute, eta arrarotasun bat sortzen du bere eduki ikonikoaren pertzepzioan. Hondoaren eta figuraren artean ematen den harreman ambigua hautematerakoan, arreta nora bideratu aukeratu behar dugu: beltz gainean nabarmentzen den forma geometriko gorri edo gorri gainean nabarmentzen den beltzera. Biak batera hautemateko ezintasuna onartu behar dugu ezinbestean. Hondo eta figura eta atal eta osotasunaren arteko harreman gatazkatsu hau ematen da, modu ezkutuagoan, atalka ere. Multzoa osatzen duten bederatzi elementu horiek bereiziz gero, bandera bakoitzaren logika konpositiboa ikusiko dugu: eremu horizontal, diagonal eta bertikalek, existitzen diren bandera batzuenekin bat egiten dute kasu batzuetan, eta esanahi jakinik gabeko permutazioak dira bestetan. Ezagutu ditzakegun banderek ez dute, hala ere, adostutako sinbolorik ez dutenek baino gehiago baldintzatzen multzoaren irakurketa. Elementu berberak osatu arren, kontsentsu kulturetzko esanahia duenaren eta esanahirik ez duenaren arteko harreman anibalente horrek erakusketa osoarentzako printzipio gidari modura balio du.

Aluminio gainean itsatsiriko argazki zatiz osatutako sail batek, Iroko/ukola (2019) izenburua duenak, hondoaren eta formaren arteko harreman hori azpimarratzen du. Zurezko zoruak eraikitzerakoan ohikoa den bilbe sigi-sagatsuen modura, gurutzatutako diagonalen patroiz geometriko bat agertzen zaigu hemen, eta argazki-paperean ebaketak eta gainjarpenak eginez, patroiz formal hori eteten da, ausazko forma geometrikoak agerraraziz. Erakusketako beste sail nagusiko lanak osatzen dituzten planoen erreplikak dira ebaketa horiek: Casa/palabra (2019) laneo aluminiozko triangelu eta erronboideak.

Ez da hori, bestalde, bi sailen arteko lotura bakarra. Emaiza bezala erakusketa hau eman duen lanean pentsatzen hasi nintzenean, testu baterako materialak prestatzen ari nintzela uste nuen. XX. mendearen erdialdeko Espainiako arkitektura arrazionalistaren ustezko abangoardismoak, xehetasun handiosekiko gustu anakronikoa mantendu izan zuen normalki, sentsibilitate burgeserako onargarriago izan zedin. Xehetasun horien artean, Gineako egurrak deitu ohi zitzaizkien ziren luxuaren ideia mantentzeko modu esanguratsu bat, egur nobleetan gorpuztuta. Benetan, materia hauek ekonomia kolonialean zuten eskuragarritasun abantailatsua zen luxu hori ahalbidetzen zuena, nonahiko bihurtu zena. Historia kolonialeko gertaera politikoei batera ematen da sapeli, iroko, okume edo ukolaren inportazioa, eta aldi berean, Espainiako modernizazioaren eraikitze moduetan sartzen da, edonon ikus zitezkeen sapelizko ate haietaraino, zeinak ia kosterik gabe iristen ziren egur enpresa nazionalera, Ginearen independentziaren bezperatan. Iroko/ukola collageek egur horien argazkizko irudikapena darabilte. Casa/palabra sailak kontrako bidia egiten duen elementu arkitektoniko bat darabil: triangelu forma, zeina casa de la palabra deituriko eraikin prototipoaren estalkian oinarrituta dagoen. Kolonia afrikar hartan soluzio konstruktibo arrazionalistak proposa zitzaiz, Carrero Blancok Ramón Estalella arkitektoari enkargatutako herrixka esperimentalen proiektuaren zati zen eraikin hori.

Erreferentzia guzti horietatik aldentzen joan nintzen pixkanaka, prozesu formala nire lanean behin eta berriz agertzen diren beste gai batzuetara lotzen zihoan heinean. Hala, elementu arkitektoniko batean oinarritutako geometria jakin bat, beste bide bat hartzen hasi zen oharkabea, duela hamar urte baino gehiago proiektatu nuen baina burutu ez nuen eskultura sail baterantz gerturatuz. Casa/palabra-k proposatzen duen sistema modularrak ere, aurrez deskribatutako gainontzeko piezek bezala, eta erakusketa osoak bezala, tenkatu egiten du atal baten eta osotasunaren arteko harreman anibalentea. Pieza honen izaera modularra osatzen duten bi elementuetako bakoitza geometria abstraktu bat bada ere, elementu heraldikoak ere badirudite, falta den esanahi baten euskarriak. Forma osoa bateratzean, eratzen duten triangelu fazetatua izaera monumentaleko enblema modura agertzen da, aldi berean sinbolizatu lezakeenarekiko opakua izanik.

Asier Mendizabal (Ordizia 1973) Bilbo eta Stockholm artean bizi da, eta irakaslea da azken hiri horretako Royal Institute of Art-en. Bakarkako erakusketak egin ditu besteak beste honako erakundeetan: MACBA, Bartzelona; Reina Sofía, Madril; Culturgest, Lisboa; Raven Row, Londres; Galerie Miroslav Kraljevic, Zagreb, Kroazia; Hordaland Kunstsenter, Bergen; San Telmo Museoa, Donostia; eta Zarigüeya/Alabado contemporáneo, Quito. Honako taldekako erakusketetan ere parte hartu du: Chacun a son gout eta Arte a espazioa, Guggenheim Museoa, Bilbo; A Singular Form, Secession, Viena; Whose Subject am I?, Kunstverein Düsseldorf; Scenarios about Europe, GFZK, Leipzig; In the First Circle, Fundació Tapies, Bartzelona; As Artes, Cidadãos, Museu Serralves, Porto; eta Després de la notícia, CCCB, Bartzelona. Gainera, honako bienaletarako aukeratua izan da: Manifesta 5, Veneziako 54. Bienala (ILLUMInazioni – ILLUMInations, Bice Curiger komisarioarekin), São Pauloko 31. Bienala, EVA International 2014, Limerick, Irlanda; 2002ko Taipeiko Bienala; eta Bukarestko 4. Bienala.





Matriz (base), 2019. Altzairu herdoilgaitza. 100 x 45 x 42,5 cm.



Matriz (base), 2019. Altzairu herdoilgaitza. 100 x 45 x 42,5 cm. (xeheatasuna)



Matriz, 2019. Altzairu herdoilgaitza. 100 x 45 x 22 cm. bakoitza





Casa/palabra (motz), 2019. Aluminio tolestua. 133 x 416 x 18 cm.



Casa/palabra (motz), 2019. Aluminio tolestua. 133 x 416 x 18 cm. (xehetasuna)



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Not all that moves is red (telón) #2, 2012. Ehun-materiala. 300 x 400 cm.



Ikuspegi orokorra



Casa/palabra, 2019. Aluminio tolestua. 365 x 416 x 43 cm.




Ikuspegi orokorra




Casa/palabra, 2019. Aluminio tolestua. 365 x 416 x 43 cm. (xehetasuna)



Ikuspegi orokorra



Casa/palabra (labur), 2019. Aluminio tolestua. Neurri aldakorrak.



Casa/palabra (labur), 2019. Aluminio tolestua. Neurri aldakorrak. (ikuspegi eta xehetasunak)



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Iroko/Ukola #3, 2019. Argazki moztuak aluminio gainean. 120 x 166 x 5 cm.



Iroko/Ukola #2, 2019. Argazki moztuak aluminio gainean. 153 x 101 x 5 cm.



Iroko/Ukola #1, 2019. Argazki moztuak aluminio gainean. 147,5 x 183 x 5 cm.



Sin título (trama #10), 2018. Serigrafía moztuak paper gainean. 100 x 70 cm.



CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725